

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

Proposamena: Giza Baliabideen Zuzendariordeztza/Kudeaketa Administrazioaren Arloko Burutza

**GAIA.- ERABAKI-PROPOSAMENA, GUFEN 2021. ETA 2023. URTEETAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK ATEZAINA ETA MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTZAILEA ETA MANDATARIA KATEGORIETAN PARTZIALKI BALIOGABETZEKO**

Aipatutako lan-eskaintza publikoak lege- eta jurisprudentzia-agertoki baketsu batean onartu ziren, eta, beraz, ezin iragarri zitekeen gaur egun gauden egoerara iritsiko ginela. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak arlo horretan eman eta Auzitegi Gorenak jasotako doktrinak xedatu zuen Espainiako agintariak neurri eraginkorrak ezarri behar dituztela behin-behinekotasunaz ez abusatzeko, eta, hala eginez gero, zehapenak ezartzeko. Era berean, doktrina hark ezarri zuen aldi baterako langileen eta langile finkoen araubide juridikoen arteko aldeak arrazoi objektiboetan baino ez direla oinarritu behar: helburuak lortzeko, aipatutako kategoria biak egon behar direla frogatu dezaketen arrazoi objektiboetan, hain zuzen ere. Izan ere, eskaintako plaza konprometituta daude, jurisdikzio-istantzia desberdinen epaiak direla-eta.

Azaldutakoaz gain, egia da GUFeko plantillan eta LPZn, atezaina eta mantentze-lanetako laguntzailea eta mandataria kategorietan, C/C2 eta lanbide-taldeak taldeetako plaza eta lanpostuak daudela. Hori gertatu da, batez ere, leku-aldaketen eta eginkizun-atxikipenen prozesuek plaza eta lanpostu horien okupatzaileei eragindako gorabehera pertsonalen ondorioz.

Hortik ondorioztatzen da plaza horien eskaintzak baliogabetu behar direla, harmonizazioaren betebeharra betetzeko. Gutxi barru, hori guztia sindikatuekin negoziatuko da.

GUFeren Estatutuak aldarazteari buruzko 2001eko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauko 5. artikuluan ezarritakoarekin bat, gai horretaz arduratzeko eskumena GUFeko Gobernu Batzordeari dagokio.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Gobernu Batzordeari bidaltzen zaio, onar dezan, honako hau:

**ERABAKI-PROPOSAMENA**

**Bakarra.-** Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUF) 2021. eta 2023. urteetako lan-eskaintza publikoak, atezaina eta mantentze-lanetako laguntzailea eta mandataria kategorietan, partzialki baliogabetzea xedatzea, aurreko txostenean oinarrituta. Txosten horrek xedapena arrazoitzeko balio du, eta eranskinean adierazitako irismena du. Bete bedi.

Bilbon, 2024ko abenduaren 13a

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA

Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA

Sin.: David Latxaga Ugartemendia



## ERANSKINA

### AURREKO URTEETAKO LAN-ESKAINITZA PUBLIKOETAN JASOTAKO PLAZAK BALIOGABETZEA

I.- 2021eko EPEa (2021eko abenduaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 250. zenbakia)

Zerrendatutako plaza hauek baliogabetzen dira:

Kod. Plaza	Plazaren izena	Lanpostu hutsen kopurua	Txanda irekia		Barne-sustapena	
			Derrigorrezko HE	Derrigorrezkoa ez den HE	Derrigorrezko HE	Derrigorrezkoa ez den HE
640	ATEZAINA ETA MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTZAILEA	4	2		1	1
	<b>GUZTIRA</b>	<b>4</b>	<b>2</b>		<b>1</b>	<b>1</b>

II.- 2023ko EPEa (2023ko abenduaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 248. zenbakia).

Zerrendatutako plaza hauek baliogabetzen dira:

Kod. Plaza	Plazaren izena	Lanpostu hutsen kopurua	Txanda irekia		Barne-sustapena	
			Derrigorrezko HE	Derrigorrezkoa ez den HE	Derrigorrezko HE	Derrigorrezkoa ez den HE
640	ATEZAINA ETA MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTZAILEA	3	1		1	1
650	MANDATARIA	5	2	1		2
	<b>GUZTIRA</b>	<b>8</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>3</b>